

LAGUNTZEI, DIRU-LAGUNTZEI ETA ARAUDI BERRIEI BURUZKO DOAKO INFORMAZIO ZERBITZU BERRIA UDALERRIENTZAT

***Newsletter-a dauka, alerta pertsonalizatuak posta elektroniko bidez jasotzeko**

Jakinarazten dizuegu datorren astelehenetik (martxoak 4) aurrera, EUDELeK **"INFOUDALA"** doako zerbitzua eskainiko duela bere webgune berritik; laguntza, diru-laguntza eta araudi berriei buruzko informazio-zerbitzu hori tokiko euskal erakunde guztiei zuzenduta egongo da.

EUDELeK modu zuzenean hartzen du bere gain zerbitzu hau ematea, eta Euskadiko udalerrri guztien eskura jarriko du, udaletako eguneroko kudeaketarako informazio-tresna baliotsu eta erabilgarri gisa.

Zer da INFOUDALA?

Zerbitzuak informazio laburtua eta berehalakoa eskaintzen du, hainbat argitalpenetan plazaratutako diru-laguntzei buruz: Europako Erkidegoetako Aldizkari Ofizialean, Estatuko Aldizkari Ofizialean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta lurralde historikoetako aldizkarietan.

Udal intereseko araudien berritasunei buruzko informazio gaurkotua ere eskaintzen du.

Subvenciones :: Eudel - Windows Internet Explorer

http://www.eudel.net/es/servicio_ayuntamientos/subvenciones

Archivo Edición Ver Favoritos Herramientas Ayuda

Subvenciones :: Eudel

Subvenciones

Por Nombre

Por Contenido

Año 2013

Institución DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

Materia DESARROLLO LOCAL Y EMPLEO

Area de Actuación Todas

Territorio histórico Todos

Realizar búsqueda

> Nola sartzen da?

EUDELen webgune berrian (www.eudel.net) eskuragarri dagoen atal berezi baten bitartez (nabarmenduta erdian).

Informazio bilaketa gaikako sailkapen zehatz baten bitartez egin ahal izango da: izena, gaia, maila, lurraldea, esparrua, erakundea eta abar.

> Alertak/ Newsletter-a

INFOUDALAK doako **alerta-sistema** dauka, aldizkari ofizialetan argitaratutako diru-laguntzak eta araudiak momentuan bertan posta elektroniko bidez ere jasotzeko. Erabiltzaileak jaso nahi dituen alertak pertsonaliza ditzake, interesak eta beharrak kontuan hartuta, kategorien arabera egindako sailkapen baten bidez.

Alertak jasotzeko, nahikoa da INFOUDALA/ **Newsletter** atalean alta ematea eta helbide elektroniko bat ematea.

✓ INFOUDALA atalera sartzeko: www.eudel.net
INFOUDALA atala (nabarmenduta, erdian)

✓ Zerbitzuarekin harremanetan jartzeko: infoudala@eudel.net